

JON GOTZON ETXEBARRIA

Barrero es daigun ludijaren gerrija,
Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño
Itxaruak berua euzkotarren ontzija
Goguak nausi diran argitasun goiraño

(Lauaxeta, "BIDE BARRIJAK", Itxa
sora; 136. orrialdea. - Bilbo, 1931)



K A T U L O
olerkiak

Λόγος δυνάστης μέγας ἐστίν
(Gorgias, "He ena" 8 9)

εἰς τὴν ἐλευθερίαν
τῆς πατρίδος

JON GOTZON ETXEBARRIA

KATULO
olerkiak

εις τήν Ἐλευθερίαν
τῆς πατρίδος
liburu-sorta
GERNIKA



© Jon Gotzon Etxebarria

Legezko Gordailua: BI-67-89

LANKOPI-Colón de Larreategi, 16-BILBO

KATULO

Uste denez, Verona-n jaio zen, K.a.-ko 87. urtean: Gaius Valerius Catullus; e ta 33 urteko zela hil. Halaxe diosku Jeronimo deunak bere Chronican.

Etxe oneko semea zela ere badakigu; e raman zuen bizimodu alaia eta lasaia eramateko laguntza ederra:

*"iucumdum cum aetas florida ver age-
ret,*

multa satis lusi... .."

Halaxe azaltzen zaigu bere LXVIII po eman.

Maitale sutsua; Erroma-ko halan-holan go emagalduen eta mutiko eromenoen atseginaz batera, Lesbia bere kutunaren maitasun gartsuaz gozatu zen. Lesbia hori ongi ezkondu tako emakumea e ta alargunduz gero burua merkeegi eskaintzen zuena edozeinen eskarien aurrean. Hortxe izan zuen Katulo-k atse

gin gozoezin batera oinaze zorrotzen iturria.

Beste olerkari maitemindu askok egin duten moduan, maitearen izena poesi-i zen batez estali zuen:

*"Sic sua lascivo cantata est saepe
Catullo*

femina, cui falsum Lesbia nomen erat"
(Hori dugu Ovidio-ren aitormena, "Tristia, II, 427-428)

Bestalde, Apuleio-ri esker badakigu e makume horren egiazko izena:

"Eadem igitur opera accusent C. Catullum, quod Lesbiam pro Clodia nominavit..." (Apologia, X)

Lesbia-renganako maitasunak, musu-ega rriak, Katulo ospetsu egin badute ere poema kultoetan gairik nagusia ez-teiak ditu.

Guztiz 116 olerki lan ezagutzen ditugu bereak, hiru ataletan bananduta:

1) olerki liriko laburrak.

2) narrazio-olerki handiak, arnas handikoak, gehienak hexametrotan.

3) epigrama laburrak, gaiez lehenengo atalekoen antzekoak.

Olerkari berrien eskolakoa dugu Katulo; Kikero-k Poetae novi, Atiko-ri zuzendutako eskutitzean νεώτεροι deitzen ditu. Zein berrikuntza zekarten, bada? Batetik olerki-era klasikoari utzi eta teknika berriak hartu: grekotik ainitz berba jesan, egitura sintaktikoak barne; hitzek esaldian duten lekuari balio berezia eman, beren soinu eta hautaketa linguistikoaren arauera. Latinean hizki berriak sartu zituzten: y(v) eta z(θ), alegia. Lehenen gotan grekotikako berbak transkribitzeko eta azkenez maileguzko hitzetan erabiliak. Gainera, neoterok letra hauek grekozko erara ebakitzen zituzten. Augusto-ren garaikoak ez bezala,

politikan ere parte hartu zuten:edo alderdietan kargudun izanez edo oratore moduan jardunez.

Gure Katulo-k,azkenik,badu zerbait interesgarria egiten duenik:*egoa* sartzen du olerkian,bizi-bizirik,inguru ko gauzekin eta pertsonekin ekinean; ego-nihaur-horren indarra eta zirrarak irakurlearen barneraino helduko da;era unkigarrian heldu ere.

Labur direlako,latin-ikasle hasiberrientzat errazak eta politikak direnak aukeratu ditut oraingoan "Lugete,o Veneres,Cupidinesque" ospetsua eta hizkuntza zabal guztietan,Europa-n,itzulitakoa ahaztu gabe.

Itzultzaileak

K A T U L O

olerkiak

III

Lugete, o Veneres Cupidinesque
 et quantumst hominum uenustiorum.
 passer mortuus est meae quellae,
 passer, deliciae meae puellae,
 quem plus illa oculis suis amabat;
 nam mellitus erat suamque norat
 ipsam tam bene quam puella matrem,
 nec sese a gremio illius mouebat,
 sed circumsiliens modo huc modo illuc
 ad solam dominam usque pipiabat.
 qui nunc it per iter tenebricosum
 illuc unde negant redire quemquam.
 at uobis male sit, malae tenebrae
 Orci, quae omnia bella deuoratis;
 tam bellum mihi passerem abstulistis
 o factum male! o miselle passer!
 tua nunc opera meae puellae
 flendo turgiduli rubent ocelli.

Negar egizue, maitale ederrak,
 negar egin, gizon bihotzberak oro,
 nire neskatoan txoria hil da ta,
 nire neskatoan txoria, poz-gogo.
 Maiteago zuen hark begiak baino,
 atsegina zen ta neskak ama aina
 ezagutzen zuen berak neskatoa.
 Haren altzotik ez inoiz aldegina.
 Batera bestera jauzka beti ere
 jabe bakarraren ondoan txioka.
 Orain, berriz, bide ilunetik doa;
 handik itzultzerik inork ere ez dauka.
 Madarikatuak Orko-ilunpe tzarrak,
 eder dena iruntsi egiten duzue,
 hain txori ederra neroni lapurtuz.
 Hau zorigaiztoa, txori dohakabe!

Orain zuregatik, orain zure erruz,
nire neskatoak, begitxo samurrak
negar eta negar malkotan urturik
handituta dauzka ta gorri-gorriak.

OHARRAK

- Venus: maitasunaren eta edertasunaren
jainkosa, grekoen Aphrodita.
- Cupido: maitasunaren jainkoa, grekoz E
ros.
- Illius: haren/eius: bere.
- Orcus: grekoen Hades, lurpeko ilunpee-
tako buruzagi. Izen horrekin ja
inkoa bera edo bere erresuma a
ipatzen dira, hots, hildakoena.
- Passer: modaz egon zen Erroma-n andr-
azkoek txori heziak edukitze-
a. Beraz, ez dago suposatzerik,
batzuk gura izan duten zentz-
un phalikorik.

V

Vivamus, mea Lesbia, atque amemus,
 rumoresque senum seueriorum
 omnes unius aestimemus assis.
 soles occidere et redire possunt:
 nobis, cum semel occidit breuis lux,
 nox est perpetua una dormienda,
 da mi basia mille, deinde centum,
 dein mille altera, dein secunda centum,
 deinde usque altera mille, deinde centum,
 dein, cum milia multa fecerimus,
 conturbabimus illa, ne sciamus,
 aut nequis malus inuidere possit,
 cum tantum sciat esse basiorum.

Bizi gaitezen, ene Lesbia,
 maitatuz eta agure
 garratzen erran-merranak, denak
 jo itzazu hutsaren pare.
 Eguzkia badoa, badator:
 Guk gau batez betiere
 lo, argi labur hau galduz gero,
 gura ez badugu ere.
 Eman musuak, mila, ehunka;
 berriz mila eta beste
 ehun; berriro mila-ehundaz;
 milaka musu berrizte!
 Milaka asko egin ondoren
 nahas ditzagun, ezuste,
 inor bekaitz ez dadin, musuak
 direla eta hainbeste!

VII


Quaeris quot mihi basiationes
 tuae, Lesbia, sint satis superque.
 quam magnus numerus Libyssae arenae
 laserpiciferis iacet Cyrenis,
 oraclum Iouis inter aestuosi
 et Batti ueteris sacrum sepulcrum;
 aut quam sidera multa, cum tacet nox,
 furtiuos hominum uident amores;
 tam te basia multa basiare
 uesano satis et super Catullost,
 quae nec pernumerare curiosi
 possint nec mala fascinare lingua.

Lesbia, zenbat musu emanda
 nahikotuko ote naizen?
 Laserpizioz ugari dugun
 Kirene hortan dagoen
 hondar-hauts beste, Libyan, Jupiter
 sutsua mintza ohi den,
 Bato zaharra hobi donean
 datzan horretan, hain zuzen.
 Edo gizonen ezkutuango
 maitasuna, gau isilez,
 ikusten duten izarrak beste.
 Katulo eroak gainez
 egin dezantzat, hola musuka
 nazazu, begiluzeek ez
 dezaten zenbat, ez eta ere
 mihi luze-gaiztoz gaitzets.

OHARRAK

Laserpicium: "laser" ematen duen landarea. Hortik laserpificer=laserpicium ematen duena: LASERPICITSUA.

Battus: Kirene-ren sortzailatzat zuten eta haren hilobia, antxina, hiri-inguruetan gurtu ohi zuten.



VIII

Miser Catulle, desinas ineptire,
 et quod uides perisse perditum ducas.
 fulsere quondam candidi tibi soles,
 cum uentitabas quo puella ducebat
 amata nobis quantum amabitur nulla.
 ibi illa multa tum iocosa fiebant,
 quae tu uolebas nec puella nolebat.
 fulsere uere candidi tibi soles.
 nunc iam illa non uult: tu quoque,

inpotens, noli,

nec quae fugit sectare, nec miser uiue,
 Sed obstinata mente perfer, obdura.
 vale, puella. iam Catullus obdurat,
 nec te requiret nec rogabit invitam:
 at tu dolebis, cum rogaberis nulla.
 scelestas, vae te quae tibi manet vita!
 quis nunc te adibit? cui videberis bella?
 quem nunc amabis? cuius esse diceris?
 quem basiabis? cui labella mordebis?
 at tu, Catulle, destinatus obdura.

Gaixo Katulo, lelokeriak
 utz itzazu honez gero
 eta galdutzat eman galdurik
 ikus ditzazunak oro.

Lehen distiraz izan dituzu
 hainbeste eguzki bero,
 maiteena nuen neskaxa lagun
 zenbiltzanean maitero.

Hainbat atsegin zen orduan: zuk
 baietz, neskak ezetik ez.

Zinez, eguzki dizditsu haiek!

Harek orain ezetz; gauzez
 zara eta, zuk ere ez gura.

Ez opa doana ihes.

Ez bizi alhaz. Amore ez eman,
 eutsi gogor, borondatez.

Agur neskato, Katulo-k ez bait
 zaitu behartuko otoika.
 Eskerik ezaz min, bai, gaiztoa?
 Zure bizitzaren kinka!
 Nor oin zugana? Norentzat eder?
 Nor maite, harena naiz-ka?
 Musuka noren ezpainak jango?
 Eutsi, Katulo, ezezka!

OHARRAK

Soles: bizimodu atseginaren adierazga
 rri lehen ere (V. ean) SOLES aipa
 tu du.

XI

Furi et Aureli, comites Catulli,
 siue in extremos penetrabit Indos,
 litus ut longe resonante Eoa
 tunditur unda,
 siue in Hyrcanos Arabasue molles,
 seu Sagas sagittiferosue Parthos
 siue quae septemgeminus colorat
 aequora Nilus,
 siue trans altas gradietur Alpes
 Caesaris uisens monumenta magni,
 Gallicum Rhenum, horribilesque ulti-
 mosque Britannos,
 omnia haec, quaecumque feret uoluntas
 caelitum, temptare simul parati,
 pauca muntiate meae puellae
 non bona dicta.
 cum suis vivat valeatque moechis,
 quos simul complexa tenet trecentos,
 mullum amans vere, sed identidem omnium
 ilia rumpens;
 nec meum respectet, ut ante, amorem,
 qui illius culpa cecidit velut prati
 ultimi flos, praeterunte postquam
 tactus aratrost.

Furi eta Aureli, Katulo-ren lagun,
 inditar artera balihoa urrun;
 urrun, sortaldean, zarataz dihardun
 kresala apurtzera doanean, astun;
 edo Hirkaniar eta Arabe samur,
 Saga zein Parthiar azkonetatik hur,
 edo Nilo zazpi adarduna itsas-ur
 margozle egiten den alderdira bihur;
 edo Alpetako gailurrak iragan,
 Kesar handiaren garaitzak gogoan,
 Galia-ko Rheno edo Britanian
 diren azken basak ikustatzekotan.
 Guzti hauek eta goikoen gurariz
 beste edozer jasan beharrean banintz,
 lagun zintzo joan, nire neskari hitz
 laburretan berri txarrak iragarritz:

bego ongi bere amoranteekin,
 batera laztandu hirurehunokin;
 bat ere ez du maite benetan ta berdin
 egingo du denon sarkutzak desegin.

Ez beza itxaron nire maitasunik
 lehen legez; bere erruz dago hilik;
 soro bazterreko lorea holanik,
 goldea igaroz gero erauzirik.

OHARRAK

EOA: Eous, a, um = sortaldekoa.

XXIV

O qui flosculus es Iuuentiorum,
 non horum modo, sed quot aut fuerunt
 aut posthac aliis erunt in annis,
 malle[m] diuitias Midae dedisses
 istri, cui neque seruus est neque arca,
 quam sic te sineres ab illo amari.
 'qui? non est homo bellus?' inquis. est:
 sed bello huic neque seruus est neque arca.
 hoc tu quam lubet abice eleuaque:
 nec seruam tamen ille habet neque arcam.

Ene, Iubentiar loretxoa, ez
 oraingoena soil, baizik eta izan
 diren eta gero urte askotan
 daitezkeenena; Midas ezerez
 honi, otsein-kutxa gabea baita,
 nahiago nukeen dirutza utzi
 bazenio ta ez hola onetsi.
 Galde zenezake: "ez al da galanta?"
 Baiki, baina eder honek otseinik
 eta kutxarik ez. Horra aukera,
 ahantz hori eta utz alde batera:
 otsein-kutxarik ez harek, damurik.

XXVII

Minister uetuli puer Falerni
 inger mi calices amariores,
 ut lex Postumiae iubet magistræ,
 ebria acina ebriosioris.
 at uos quo lubet hinc abite, lymphæ,
 uini pernicies, et ad seueros
 migrate: hic merus est Thyonianus.

Falerno zaharra dakarzun morroia,
 ardo garratzagoz bete edontzia.

Postumia agintari, arnoz beteriko
 mahats-garaun baino mozkorragok dio:

Zuek, berriz, linphak, hemendik alde egin
 edonora, bada zuentzat atsegin;

Ardoaren etsai, betilunengana
 joan; Tyoniarra huts da hemen dena.

 OHARRAK

Erromatar oturuntzetan ur-ardoak erdi
 bana atera ohi zituzten. Oturuntzaren
 azkenerantz ura urritu egiten zen.

Oturuntzaren buru egiten zuena aukera
 tu eta haren esanetara jartzen ziren
 mahaiakideak jolasez.

Bako edo Tyoneo, Tyone edo Semele-ren
 semea zen eta.

XXXVIII

Malest, Cornifici, tuo Catullo,
 malest, me hercule, et laboriose,
 et magis magis in dies et horas.
 quem tu, quod minimum facillimumquest,
 qua solatus es adlocutione?
 irascor tibi. sic meos amores?
 paulum quid lubet adlocutionis,
 maestius lacrimis Simonideis.

Kornifizio, gaizki, zinez gaizki dabil
 Katulo zurea, alafede, ez hil
 bai hil, egunetik egunera, une
 batetik bestera. Hain erraz, hain merke
 izanik, non zure pozezko elea?
 Haserre naiz. Hori elkar maitatzea?
 Hitz erditxo bat poz emaile, ilunago
 Simonides negar egilea baino.

OHARRAK

Zeos-ko Simonides olerkari grekoa (K.
 a.-ko VI. gizaldikoa) erosta-poemak e
 giten sona handikoa.

XLI

Ameana puella defututa
 tota milia me decem poposcit,
 ista turpiculo puella naso,
 decoctoris amica Formiani.
 propinqui, quibus est puella curae,
 amicos medicosque conuocate:
 non est sana puella, nec rogare
 qualis sit solet; est imaginosa.

Eskuka ibiliko neska Ameana,
 hamar mila eske dator, hamar mila!
 Sudur motzekoa bera, Formiano
 esku-urratuaren lagun, neskatila.
 Senitartekoak, neskan arduradun,
 arin adiskideen, sendagileen bila.
 Neska ez dago ondo, ez bait du eskatzen
 ohizkoa; amets gaiztoz al dabila!

XLIII

Salve, nec minimo puella naso
 nec bello pede nec nigris ocellis
 nec longis digitis nec ore sicco
 nec sane nimis elegante lingua,
 decoctoris amica Formiani.
 ten prouincia narrat esse bellam?
 tecum Lesbia nostra comparatur?
 o saeclum insapiens et infacetum!

Agur, sur txiki, oin polit, begi
 beltz, hatzamar luze, aho
 egoki, mihi hain dotorerik
 ez duzun neska, Formiano
 esku-urratu honen laguna.
 Ederra probintziarako?
 Zurekin gure Lesbia aldera?
 Hau mende ezjakin, gatzbako!

XLVIII

Mellitos oculos tuos, Iuuenti,
 siquis me sinat usque basiare,
 usque ad milia basiem trecenta,
 nec umquam uidear satur futurus,
 non si densior aridis aristas
 sit nostrae seges osculationis.

Iubenti, zure begi gozoak
 beti musuka ahal banitza,
 milaka aldiz egingo nuke,
 inoiz eritzi gabe askotza,
 gure musu-uzta galburuenaz
 gain balitz ere lar aberatsa.

XLIX

Disertissime Romuli nepotum,
 quot sunt quotque fuere, Marce Tulli,
 quotque post aliis erunt annis,
 gratias tibi maximas Catullus
 agit, pessimus omnium poeta,
 tanto pessimus omnium poeta
 quanto tu optimus omnium patronus.

Romulo-ren iloba-artean,
 orain, lehengo, geroko aldi
 oroz izango direnetatik
 ikasiena; eskerrak zuri
 Katulo olerkigile txar honek.
 Guztietatik txarrena, bai, ni,
 legegizonik onena zaren
 hizlari horren aldean, noski.

OHARRAK

Anbigua da esanguraz olerki hau; alde batetik, gorespenez betea; bestetik berriz, Kikero-ren erretorika, ustez larregia, jostagarritzat hartuta.

LIV

Othonis caput oppidost pusillum,
 Herei rustica semilauta crura,
 subtile et leue peditum Libonis,
 si nom omnia, displicere uellem
 tibi et Sufficio, seni recocto.
 irascere iterum meis iambis
 inmerentibus, unice imperator.

Othon-en burua txikia da guztiz,
 Herei-ren iztarrak, latz, garbiak erdiz,
 Libon-en uzkerra mehe eta arina.
 Den-denek ez bada, hauetxek iguina
 emango dizute zuri, baita agure
 berregositako Suffizio-ri ere?
 Berriro haserre nere yanboekin,
 hutsalak dituzu, agintari bikain!

OHARRAK

Azkenean aipatzen duen Kesar-i zuzen-
 dutako olerkia. Haren lagun maminen a-
 katsak argitaratuz zirikatu nahi du.

LXX

Nulli se dicit mulier mea nubere malle
 quam mihi, non si se Iuppiter ipse petat
 dicit: sed mulier cupido quod dicit amanti
 in vento et rapida scribere oportet aqua.

Ez omen beste inor maiteko,
 nire kutunak dio, ni ezik,
 Jupiter bera eske baletor
 ere. Irrikaz dagoelarik
 emakumeak Maitaleari
 esaten dion dena, damurik,
 haizetan eta ur lasterrean
 ipini behar da idatzirik.

OHARRAK

Gai honi buruzko azterketa eta Lauaxeta-rekin konparaketa, ikus sorta honetako 7. alean: LAUAXETA DELA ETA, 3 OLERKI AZTERKETA deritzona (Lauaxeta eta Katulo)

LXXXV

Odi et amo. quare id faciam fortasse requiris.
nescio, sed fieri sentio et excrucior.

Gorroto eta maite
dut.Zergatik hori?,
diostazu.Ez dakit;
halaxe minez ni.

OHARRAK

Olerkitxo honekin antza duen Anakre-
onte-ren batxo ikusteko,ikus sorta
honetako 3.alea:ANAKREON.

XCII

Lesbia mi dicit semper male nec tacet umquam
de me: Lesbia me dispeream nisi amat.
quo signo? quia sunt totidem mea: deprecor illam
adsidue, uerum dispeream nisi amo.

Lesbia beti nigatik gaizki
esaka, inoiz ez dago isil.
Maite ez banau hil egingo naiz.
Zertan igarri? Ni berdina nabil:
sarri ahenka hargatik; baina
maite ez badut, orduan ni hil.

LATINEZKO OLERKIEN

<u>izenak</u>	<u>orrialdeak</u>
Ameana puella defututa.....	32
Disertissime Romuli nepotum.....	38
Furi et Aureli,comites Catulli...	22
Lesbia mi dicit semper male nec tacet umquam.....	46
Lugete,o Veneres Cupidinesque.....	8
Malest,Cornifici,tuo Catullo.....	30
Mellitos oculos tuos,Iuventi.....	36
Minister vetuli puer Falerni.....	28
Miser Catulle,desinas ineptire...	18
Nulli se dicit mulier mea nubere malle.....	42
Odi et amo,quare id faciam for- tasse requiris.....	44
Othonis caput oppidost pusillum..	40
O qui flosculus es Iuventiorum...	26
Quaeris quot mihi basiationes....	14
Salve,nec minimo puella naso.....	34
Vivamus,mea Lesbia,atque amemus..	12

EUSKAL ITZULPENEN

<u>izenak</u>	<u>orrialdeak</u>
Agur, sur txiki, oin polit, begi.....	35
Bizi gaitezen, ene Lesbia.....	13
Ene, Iubentiar loretxoa, ez.....	27
Eskuka ibiliko neska Ameana.....	33
Ez omen beste inor maiteko.....	43
Falerno zaharra dakarzun	29
morroia.....	29
Furi eta Aureli, Katulo-ren	
lagun.....	23
Gaixo Katulo, lelokeriak.....	19
Gorroto eta maite.....	45
Iubenti, zure begi gozoak.....	37
Kornifizio, gaizki, zinez gaizki	
dabil.....	31
Lesbia beti nigatik gaizki.....	47
Lesbia, zenbat musu emanda.....	15
Negar egizue, maitale ederrak.....	9
Othon-en burua txikia da guztiz..	41
Romulo-ren iloba-artean.....	39